

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

567

EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 24koa, Gazteriako zuzendariarena. Honen bidez, jendaurrean jartzen da zer diru-kopuru eta nori eman zaion Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2021eko ekainaren 16ko Aginduaren babesean, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte ekipamenduen sarea bultzatzeko 2021erako dirulaguntzak emateko modua arautzen eta deitzen duena.

Kontuan hartu da Gazteriako zuzendariaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dela, horixe xedatzen baitu 2021eko ekainaren 16ko Aginduaren 16.4 artikulua.

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2021eko ekainaren 16ko Aginduaren babesean 2021. urtean onartu diren dirulaguntzen eta onuradunen zerrenda argitaratzea. Eranskinean daude jasota.

2. artikulua.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, denak jakinaren gainean egon daitezen.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 24a.

Gazteriako zuzendaria,
AGURTZANE LLANO CUADRADO.

2022ko otsailaren 2a, asteazkena

ERANSKINA

Erakundea	Egitasmoa	Dirulaguntza
Aguraingo Udala / Ayuntamiento de Salvatierra	Agurain, espacio para la ciudadanía 3.0 mejora de equipamiento Palacio Uriarte-cambio de ventanas	20.350
Aguraingo Udala / Ayuntamiento de Salvatierra	Agurain, espacio para la ciudadanía 3.0 nuevo equipamiento antiguo lavadero-centro juvenil	7.634
Anoetako Udala / Ayuntamiento de Anoeta	Gaztetxeen lokalen egokitzapena	11.995
Arteako Udala / Ayuntamiento de Artea	Arteako Gazteleku	2.857
Bilboko Udala / Ayuntamiento de Bilbao	Proyecto Gaztelab	52.000
Elorrioko Udala / Ayuntamiento de Elorrio	Gazteen musika taldeentzako entsegu lokalen eraberritzea	2.852
Gaubeako Udala / Ayuntamiento de Valdegobia	Gaztetxe municipal de Espejo	13.329
Gaubeako Udala / Ayuntamiento de Valdegobia	Adecuación Gaztetxe Valdegobia-Gaubea	453
Laguardiako Udala / Ayuntamiento de Laguardia	Nuevo centro joven Laguardia	17.877
Lemoako Udala / Ayuntamiento de Lemoa	Centro juvenil y cultural de Lemoa	44.000
Maruri-Jatabeko Udala / Ayuntamiento de Maruri-Jatabe	Obras de mejora en el local municipal Gaztegune	32.570
Muxikako Udala / Ayuntamiento de Muxika	Reparación, acondicionamiento y mejora de albergue juvenil	23.330
Ordiziako Udala / Ayuntamiento de Ordizia	Ordiziako Gaztelekuaren segurtasun-, osasungarritasun- eta kontrol baldintzak egokitzeko plana	5.301
Sondikako Udala / Ayuntamiento de Sondika	Gaztea 2020: renovación del Gaztetxe	10.599
Urkabustaizko Udala / Ayuntamiento de Urkabustaiz	Automatización cerraduras puertas de acceso Gazteleku y Jolastxoko	733
Urnietako Udala / Ayuntamiento de Urnieta	Box-es para grupos de música juveniles	38.000
Zarauzko Udala / Ayuntamiento de Zarautz	Gaztelekuko hiru areto berritu eta egokitzea eta margoketa lanak egitea espazio horietan eta eskailera hartzen duen inguru guztian	6.034